

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure **helburu** garrantzitsuena pertsona nagusiei eta desgaituei **konponbide** berriak eta **esperientziak** eskaintzea da, ibilaldi txikiak eskainiz eta haienzako egokia den ingurune sozial batean egonez.

Gure enpresak eskaintzen du pertsona nagusiak eta ezgaitasunen bat edo bestea duten pertsonak goza ahal izatea leku batean, non maitatuta sentituko diren haiek berek zaindu ahal izango dituzten animaliaz eta gure bertako langileaz. Uste dugu modu bat dela, pertsona hauek **zerbait desberdina esperimentatzeko** beste bizileku batzuetan edo ardura-zentroetan ezin izango dutena egin, animalia maitagarri inguratuta egongo lirakeelako eta hauek, eman ahal zaien laguntza guztia behar dutelako.

Bestalde, **hautazko ibilaldi** desberdinak egiteko plana dugu, gainera, pertsona interesatuen iradokizunak kontuan hartuko ditugu ere, izan ere, esperientzia hau nahi baino eroso eta atsegina izatea nahi dugu. Era berean, uste dugu bere egoera berean dauden pertsonekin egoteak, bere taldeko gainerako pertsonak izango lirakekeenak, lagun diezaiekeela edozein arazotan, pertsonal edo edozein motatakoa. Beharrezkoa da aipatzea, **psikologo** bat egongo dela **bezeroaren esku**, beraz, saio bat berarekin behar izatekotan, honekin harremanetan jarri behar izango lukeen.

Terapiarako eta bezeroei egonaldian zehar laguntzeko erabiliko ditugun animaliak, txakur-etxoletatik eta animalia-etxeetatik eskuratuko ditugu. Hauek zaintzeko eta haien osasunaz eta ongizateaz arduratzeko aditu bat izango dugu gure langileen artean.

Azkenik gogoratu nahi ditugu konpondu edo behintzat murriztu ahal izango ditugun arazoak eta beharrak, eta hauek dira, esaterako, bakardadea edo uzte soziala. Nagusi edo desgaitutako pertsona asko gizartetik kanpo utzita sentitzen dira. Horregatik hauetariko askok bakardadea sentitzen dute eta guk nahi duguna haiei **bakardade** hori **ez sentitzen** laguntzea eta kasu bakoitza bereziki aztertzerakoan bezeroek izan dezakeen beste edozein arazo konpontzen saiatzea da.




Fig. 1. Personas mayores que se sienten solas, según la edad, el género y la situación personal.